

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

Babes Gabeko Pertsona eta Familiak Laguntzeko Udal Programako aurrekontu zuzkidura

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2016ko irailaren 23an egin duen saioan, onartu egin du luzatzea Babes Gabeko Pertsona eta Familiak Laguntzeko Udal Programako aurrekontu zuzkidura 10.000,00 eurotan (175.000,00 euro zenbatekora arte), Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren (DSBE) edo Etxebizitzarako Prestazio Osagarriaren (EPO) prestazioak jaso ezin dituzten elkarrekin bizi diren elkarbizitza unitateentzako xederatuta izanik, jasaten duten gizartearen babesik gabeko egoera dela-eta euren ezinbesteko lehen beharrianak estaltzeko diru-laguntzak behar dituztenak.

Betekizunak:

Laudio udalerrian erroldatuta egotea, eskaera aurkeztu aurretik gutxienez 15 hilabetez, salbu eta alde aurretiko 10 urtetik gorako erroldatze bat justifikatzen badute.

Elkarbizitza unitateko ekonomia baliabideak 2016ko Oinarrizko Errentaren ehuneko 75 baino gutxiago izan behar dira.

Laguntza ematearen alde Gizarte Zerbitzuen txostena.

Zerga eta Gizarte Segurantzaren obligazioak beteta daudela egiaztatzea.

Pertsona onuradunak:

Haur Hezkuntzako 1. Zikloan, DBHo edo DBHn adingabeak dituzten familiak.

Estimulazio goiztiar edo psikoterapia tratamenduan adingabedun familiak.

Familia ingurune egokirik gabeko gazteak mendekotasunpetatik desohitura prozesuan ari diren pertsonak

Elkarrekin bizitzeagatik DSBE jaso ezin duten pertsonak

Biztanleen Erroldako antzinatasunagatik DSBE jaso ezin duten pertsonak

DSBE etenda duten pertsonak, axolagabekeriaren ondorio ez den administrazio xehapenagatik edo ekonomia edota ondare egoerari buruzko informazioa izkutatzegatik eta beharrian gorri larrian egon eta adingabeak mende dituztenak.

Gizarteratze ibilbidea egiten ari diren pertsonak, prestakuntza ekintzei atxikita

Normalizazio prozesuan dauden pertsona gaixo psikikoak

Gaixotasun larriko pertsonak euren menpean haurrak dutenak

Bikotea hautsi / galeragatik kargu eta mende dituzten seme-alaba gazteekin laguntza behar dutenak, euren enpleguari eutsi ahal izateko

Etxean tratatu txarrak jasan dituzten emakumeak

Kaleratzeko epailearen jakinarazpenarekiko Bizikidetasun Unitateak

Epea: Laguntza hauen izaera kontuan izanik, ez dago eperik eskaera egiteko 2016 urte honetan zehar.

Tramiteak:

Laguntza eskaera formalizatzea erreferentziako Gizarte Langilearen aurrean.

Gizarte Zerbitzuek betebeharrak betetzen diren ala ez egiaztatuko dute eta laguntza ematea / ez emateari buruzko gizarte txostena egingo dute.

Eskaerak Alkatetzak ebatziko ditu, proposamen tekniko-administratiboa eta zinegotziaren proposamena aztertuta.

Laguntza ematearen aldeko udal erabakian adieraziko da diru laguntzaren zenbatekoa, zenbat denborarako ematen den eta berrikusi edo berritzeko eguna zein den.

Laguntza ez emateko ebazpena arrazoitua izango da eta Udalak jakinaraziko dio pertsona eskatzaileari.

Ordainketa

Programa honen markoan emandako diru laguntzak ordainduko ditu Udalak, kasuan kasuko dagokion ebazpenean aurreikusitako terminoetan. Laguntzak hileroko ordainduko dira.

Babes Gabeko Pertsona eta Familiei Laguntzak emateko Udal Programa barruko guztirako zenbatekoak 2016 urtean zehar, ezin izango du gairitu 175.000,00 euro zenbatekoa, Gizarte Ongizate, Lankidetzeta eta Osasuna Arloko aurrekontuan 0700-2311-480.20 aurrekontu sailean horretarako gordetako kreditua baita.

Informazioa interesa duten pertsonentzako: aldez aurreko hitzordua eskatuta 944034840 telefonoan edo Gizarte Ongizate bulegoan (Herriko Plaza, 5)

Laudio, 2016ko urriaren 6a

Alkate-udalburua

JON IÑAKI URKIXO ORUETA